**GABIRIAKO UDALA**

IRAGARPENA, toki-erakundeen ikur bereizgarriak hartzeko edo aldatzeko prozedura onartzen duena. 5966

# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-1483

53/1998 DEKRETUA, martxoaren 24koa, Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordea sortzeko dena.

Euskal erakunde publikoek, gobernuz kanpoko erakundeek eta garapen bidean dauden herrialdeen aldeko beste erakunde batzuk burutzen duten Garapen Lankidetza nabarmen indartu da azken urteotan. Gaur egun 700 proiektutik gora burutu dira euskal dirulaguntzez. Bestalde, Jaurlaritzaren programan jasota dago Garapen Lankidetzarako fondoak gehitu egingo direla apurka eta legegintzaldiaren bukaeran Jaurlaritzaren aurrekontu operatiboaren %0,7ra iritsiko direla fondook. Horrela bada, Garapen Lankidetza handia da gaur egun eta handiagoa izango da etorkizunean. Horregatik, egoki da horretan esku hartzen duten aktoreentzako bilgunea eta elkargunea sortzea, Garapenerako Euskal Lankidetzaren egoera aztertu eta bide berriak urra ditzaten elkarrekin; beti ere, garapen bidean dauden herrialdeen aldeko elkartasunaren kalitatea, eraginkortasuna eta gardentasuna gehitzeko asmotan.

Ondorioz, Jaurlaritzako Lehendakaritzaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko martxoaren 24an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Sortzea eta atxikitzea.

Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordea sortzen da eta Jaurlaritzako Lehendakaritzari atxikitzen zaio.

**AYUNTAMIENTO DE GABIRIA**

ANUNCIO por el que aprueba el procedimiento para la adopción o modificación de signos distintivos de los entes locales. 5966

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-1483

DECRETO 53/1998, de 24 de marzo, por el que se crea el Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi.

La Cooperación al Desarrollo realizada por las Instituciones Públicas Vascas y por las Organizaciones No Gubernamentales y otras entidades comprometidas con los Países en Vías de Desarrollo ha alcanzado un notable impulso en los últimos años. En la actualidad son ya más de 700 los proyectos realizados con las aportaciones económicas vascas. Por otro lado, el programa de Gobierno contempla el compromiso de aumentar los Fondos dedicados a la Cooperación al Desarrollo hasta alcanzar, al final de la legislatura, una cantidad equivalente al 0,7% del presupuesto operativo del Ejecutivo Autónomo. Ambos hechos, el volumen alcanzado ya en el presente y las perspectivas de crecimiento futuro aconsejan la creación de una plataforma de encuentro y participación de los diferentes actores implicados para propiciar una reflexión conjunta sobre el estado actual de la Cooperación Vasca al Desarrollo y explorar nuevas vías de actuación, siempre con el objetivo de aumentar en calidad, eficacia y transparencia las acciones solidarias dirigidas hacia los Países en Vías de Desarrollo.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia del Gobierno, previa deliberación y aprobación en su sesión celebrada el día 24 de marzo de 1998,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Creación y adscripción.

Se crea el Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi y se adscribe a la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza.

*2. atala.–* Helburua eta alorra.

Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordea erakunde kolegiatua da administrazio publikoei, gobernuz kanpoko erakundeei eta Euskal Autonomia Erkidegoko bestelako agente sozialei Hirugarren Munduaren aldeko Garapen Lankidetzaz aholkuak emateko eta erakundeok Garapen Lankidetzan duten esku hartzea bultzatzeko.

*3. atala.–* Batzordekideak.

Honako hauek izango dira Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordeko kideak:

a) Hirugarren Munduko Garapen eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren Kudeaketa Batzordeko 10 kideak eta EUDELen ordezkari bat.

b) Euskadiko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen (GGKE) zazpi ordezkari.

c) Euskadin ezarritako erlijio ordenen ordezkari bat.

d) Garapen Lankidetzaren alorrean ari diren erakundeen bi ordezkari:

– Bata, Euskadiko hezkuntza-lanbide heziketa alorrekoa.

– Bestea, mikroenpresak edota kooperatibak sortzearen alorrekoa.

e) Garapen bidean dauden herrialdeekin jatorri harremana duen pertsona bat.

*4. atala.–* Egitekoak.

1.– Honako hauek dira Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordearen egitekoak:

a) EAEren esparruan aholkua eman elkartasunaz eta garapen lankidetzaz.

b) EAEk burutzen duen garapen lankidetzarako irizpideak eta lehentasunak proposatu eta lankidetza horren kalitatea, eraginkortasuna eta gardentasuna zaindu.

c) Garapen lankidetzaren alorrean ari diren agente sozialek bere egitekoa zuzen bete dezaten neurriak proposatu.

d) Proiektuak ebaluatzeko irizpideak proposatu.

e) Garapenean hezteko eta sentsibilizatzeko ekintzak proposatu eta bultzatu.

f) Nazioarteko erakundeek garapen lankidetzaz emandako aholkuak egoki bete daitezen neurriak proposatu.

g) Hondamendiei eta larrialdiei aurre egiteko laguntzak proposatu eta bultzatu.

*Artículo 2.–* Objeto y ámbito.

El Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi se constituye como un órgano colegiado de asesoramiento y promotor de la participación de las Administraciones Públicas, Organizaciones No Gubernamentales y otros Agentes Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en las políticas sobre Cooperación al Desarrollo a llevar a cabo en Países del Tercer Mundo.

*Artículo 3.–* Composición.

El Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi estará compuesto por los siguientes miembros:

a) Los 10 integrantes de la Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo y un representante de EUDEL.

b) Siete representantes de las ONGDs de Euskadi.

c) Un representante de Ordenes Religiosas con implantación en Euskadi.

d) Dos representantes de entidades que trabajen en ámbitos relacionados con la Cooperación al desarrollo:

– Uno del Sector de la Educación - Formación Profesional de Euskadi.

– Uno vinculado a la creación de microempresas y/o cooperativas.

e) Una persona vinculada por su origen con los Países en Vías de Desarrollo.

*Artículo 4.–* Funciones.

1.– Las funciones del Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi son las siguientes:

a) Asesorar en el ámbito de la CAPV en materias de solidaridad y cooperación al desarrollo.

b) Proponer criterios y prioridades de la política de cooperación al desarrollo realizada desde la Comunidad Autónoma de Euskadi, velando por su calidad, eficacia y transparencia.

c) Proponer medidas para la correcta actuación de los agentes sociales que operan en el ámbito de la cooperación al desarrollo.

d) Proponer criterios de evaluación de proyectos.

e) Proponer e impulsar iniciativas de sensibilización y educación al desarrollo.

f) Proponer medidas para el adecuado cumplimiento de las recomendaciones emanadas de organismos internacionales en materia de cooperación al desarrollo.

g) Proponer e impulsar iniciativas de ayuda para hacer frente a las catástrofes y situaciones de emergencia.

h) Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak garapen lankidetzaren alorrean lantzen dituen arauen aurreproiektuak ezagutu.

i) Euskal administrazio publikoen bestelako politikek Garapen Lankidetzarako Progamarekin duten koherentziaz aholkua eman.

j) Garapen lankidetzaz azterlanak edota txostenak egin, Ipar eta Hegoaren arteko desberdintasun harremanei iraunarazten dieten bideak ezagutarazteko.

k) Urtero txosten bat egin Euskal Autonomia Erkidegoan edo Euskal Autonomia Erkidegotik burututako garapen lankidetzaz. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia arduratuko da txosten hori Legebiltzarrera bidaltzeaz.

l) Gizarte zibilak garapen lankidetzaz dituen ideiak eta proposamenak bildu.

m) Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordeak egindako lanaren berri eman euskal gizarteari.

n) Elkartasunari eta garapen lankidetzari buruzko topaketa, jardunaldi, batzar eta bestelakoak antolatzea proposatu; baita ere, horietan landutako azterlan eta dokumentuak argitaratzea.

o) Eskualde arloko proiektuetan erakunde publikoak eta agente sozialek koordinatuta aritu daitezen irizpideak proposatu.

p) Hirugarren Munduaren aldeko programak garatzeko, beste lekuetako administrazioekin edo erakunde publiko nahiz pribatuekin harremanak ezartzea edo hitzarmenak izenpetzea bultzatu.

q) Euskal erakundeek batzordearen esku uzten dituzten eginbeharrak bete, garapen lankidetzako alorrekoak badira eginbeharrok; eta, orokorrean, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoko baliabideak egoki erabil daitezen arduratu eta garapenerako dirulaguntzen kalitatea eta gardentasuna bermatu.

2.– Batzordeak bere eginbeharrak bete ditzan, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren (GLSF) programa nola burutzen ari den galdetu ahalko dio batzorde horrek Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari.

*5. atala.–* Lehendakaria.

Batzordearen buru Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia izango da. Bere botoak erabakiko ditu suertatzen diren boto berdinketak.

Lehendakariordetza agente sozialen ordezkari baten esku geratuko da eta horrek hartuko ditu lehendakariaren betebeharrak lehendakaria ez dagoenean.

*6. atala.–* Batzordekideak.

h) Conocer previamente los anteproyectos de normas elaboradas en el ámbito de la Cooperación al desarrollo por la Secretaría General de Acción Exterior.

i) Asesorar sobre la coherencia de otras políticas de las Administraciones Públicas Vascas con los objetivos del Programa de Cooperación al Desarrollo.

j) Realizar estudios y/o informes sobre temas relativos a la cooperación al desarrollo que promuevan el conocimiento de los mecanismos que mantienen las relaciones de desigualdad entre Norte y Sur.

k) Redactar un informe anual sobre la cooperación al desarrollo realizada en o desde la Comunidad Autónoma Vasca. La Secretaría General de Acción Exterior tramitará la remisión de este informe al Parlamento.

l) Recabar ideas y propuestas de la Sociedad civil respecto a políticas de cooperación al desarrollo.

m) Informar a la Sociedad Vasca de la labor desarrollada anualmente por el Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo.

n) Proponer la organización de encuentros, jornadas, congresos y/o actividades relativas a la solidaridad y cooperación al desarrollo, así como la publicación de estudios y documentos elaborados en los mismos.

o) Proponer criterios de actuación coordinada entre instituciones públicas y agentes sociales para el desarrollo de proyectos de ámbito comarcal y/o regional.

p) Impulsar el establecimiento de relaciones y/o convenios con otras Administraciones y entidades públicas o privadas de cualquier ámbito geográfico para el desarrollo de programas en favor de los Países del Tercer Mundo.

q) Cuantas otras funciones le encomienden las Instituciones Vascas en materia de cooperación al desarrollo y, en general, velar por la eficaz utilización de los recursos aplicados al FOCAD, que garantice la calidad y la transparencia de la ayuda al desarrollo.

2.– Para el cumplimiento de sus funciones el Consejo podrá solicitar a la Secretaría General de Acción Exterior información relativa a la ejecución del programa FOCAD.

*Artículo 5.–* Presidencia.

El Consejo estará presidido por el Secretario General de Acción Exterior, cuyo voto será dirimente de los empates que se produzcan.

La Vicepresidencia recaerá en un representante de los Agentes Sociales, asumiendo las funciones del Presidente en su ausencia.

*Artículo 6.–* Miembros.

1.– Beren kargua dela eta batzordekide direnak izan ezik, beste batzordekideak lehendakariak izendatuko ditu, ordezkatzen dituzten erakundeen proposamena aztertu ondoren.

2.– Dekretu honetako 3. atalaren d) eta e) azpiataletan adierazitako ordezkariak batzordea osatzen duten erakundeen iritzia entzun ondoren izendatuko ditu batzordearen lehendakariak.

3.– Lehendakariak batzordearen kide bat izendatuko du idazkari lanetarako.

4.– Lehendakariordea agente sozialen ordezkari bat izango da eta dekretu honetako 3. ataleko b, c, d eta e azpiataletako batzordekideetatik aukeratuko da.

5.– Batzordekideen agintaldia 2 urtekoa izango da, beren kargua dela eta batzordekide direnena izan ezik. Agintaldi hori beste hainbeste urteko agintaldietara luzatu ahal da.

6.– Hala ere, batzordekideak agintaldia baino amaitu baino lehen kendu nahi badira kargutik, batzordekideak proposatu dituzten erakundeek eskatuta kenduko ditu lehendakariak, beren kargua dela eta batzordekide direnak izan ezik. Batzordekide berriaren agintaldia kendutako kidearena bukatu arte izango da.

7.– Lehendakariak batzordea osatzen duten erakundeen iritzia entzun ondoren kenduko ditu kargutik dekretu honetako 3. ataleko d) eta e) azpiataletan adierazitako ordezkariak. Batzordekide berriaren agintaldia kendutako kidearena bukatu arte izango da.

*7. atala.–* Pertsona adituak.

Lehendakariak egoki deritzonean edo batzordekideak horrela eskatzen diotenean, pertsona adituek batzordearen bileretan parte har dezatela eskatu ahalko du lehendakariak; beti ere, pertsonok batzordearen bileretan aztertuko diren gaietan adituak badira. Adituek hitza izango dute; baina ez, botoa.

*8. atala.–* Funtzionamendua.

1.– Administrazio Publikoen Lege Jaurbideari eta Administrazioaren Prozedura Orokorrari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. izenburuko II. atalburuan ezarritakoaren arabera hartuko dira batzordearen erabakiak, horretan arautzen baitira organo kolegiatuak.

2.– Jaurlaritzako Lehendakaritzak emango du batzordeak ondo funtziona dezan behar duen laguntza tekniko eta materiala.

3.– Batzordea hiruhilabetean behin bilduko gutxienez, bilera ohikoa bada; eta lehendakariak horrela erabakitzen duenean edo batzordekideen heren batek horrela eskatzen duenean, bilera ezohiko bada.

1.– El nombramiento de los miembros del Consejo, salvo el de aquellos que lo sean por razón de su cargo, se hará por el Presidente a propuesta de sus entidades representativas.

2.– El nombramiento de los representantes señalados en el artículo 3, apartados d) y e) de este Decreto, se hará por el Presidente del Consejo, oído el parecer de las entidades que lo integran.

3.– El Presidente designará a un miembro del Consejo para desempeñar las funciones de Secretario.

4.– El Vicepresidente será un representante de los Agentes Sociales elegido entre los miembros del Consejo que figuran en los apartados b,c,d y e del art. 3 de este Decreto.

5.– El mandato de los miembros del Consejo, salvo el de los que lo sean por razón del cargo, será de 2 años, renovable por períodos de igual duración.

6.– No obstante lo anterior, el cese de los miembros del Consejo antes de finalizar su mandato, salvo el de los que lo sean por razón del cargo, se hará por el Presidente a petición de las entidades que los hubieren propuesto. El mandato del nuevo miembro completará, hasta agotarlo, el mandato del miembro cesado.

7.– El cese de los representantes señalados en el artículo 3, apartados d) y e) de este Decreto, se hará por el Presidente del Consejo, oído el parecer de las entidades que lo integran. El mandato del nuevo miembro completará, hasta agotarlo, el mandato del miembro cesado.

*Artículo 7.–* Personas especializadas.

El Presidente, por propia iniciativa o a petición de los miembros del Consejo, podrá solicitar la participación en las sesiones del Consejo a personas especializadas en los temas que fueren objeto de tratamiento en las mismas, que asistirán con voz pero sin voto.

*Artículo 8.–* Funcionamiento.

1.– Los Acuerdos del Consejo se adoptarán conforme a lo establecido en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, para los órganos colegiados.

2.– La ayuda técnica y material necesaria para el buen funcionamiento del Consejo será prestada por la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza.

3.– El Consejo se reunirá con carácter ordinario al menos una vez cada tres meses, y con carácter extraordinario, cuando así lo decida el Presidente o lo solicite un tercio de los miembros del Consejo.

4.– Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordeko kide guztiek doan beteko dute kargua eta ez dute inolako ordainsaririk jasoko egin behar dutena egiteagatik.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordeak hiru hilabeteko epea izango du lehenengo bilera egiteko, dekretu hau indarrean jartzen denetik hasita.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Administrazio Publikoen Lege Jaurbideari eta Administrazioaren Prozedura Orokorrari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. izenburuko II. atalburuan jasotako arauei eta dekretu honetan ezarritakoari lotuko zaie batzordearen araubidea. Batzordeak berak erabakiko du bere antolaketa.

*Bigarrena.*– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko martxoaren 24an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

4.– Todos los miembros del Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi ejercerán el cargo de forma gratuita, sin que en ningún caso puedan percibir retribución en el desempeño de sus funciones.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi se constituirá por primera vez dentro del plazo de tres meses desde la entrada en vigor de la presente disposición.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– El régimen jurídico del Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi se ajustará a las normas contenidas en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y a lo dispuesto en el presente Decreto, estableciendo el propio Consejo sus peculiaridades organizativas.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOPV.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de marzo de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### Zk-1484

54/1998 DEKRETUA, martxoaren 24koa, «Urbiga, Urumea-Bidasoaldea Industri Garapenerako Baltzua, S.A.» baltzu publikoaren 1998ko aurrekontuak onartzen dituena.

Abenduaren 23ko 309/1997 Dekretuak baimena eman zion Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuari (ISEB) «Urbiga, Urumea-Bidasoaldea Industri Garapenerako Baltzua, S.A.» Baltzu berrian parte hartzeko. Baltzu hau, Sociedad de Desarrollo Industrial Sortu 1, S.A. eta Sociedad de Desarrollo Industrial Sortu 5, S.A. baltzuen bategitearen eraginez sortu zen.

Baltzua eratuta, Euskadiko Aurrekontu Erregimenaren (Eraberritutako idazkeran) bigarren xedapen gehigarriak ahalmena ematen dio Jaurlaritzari aurre-

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### N°-1484

DECRETO 54/1998, de 24 de marzo, por el que se aprueban los presupuestos para 1998 de la Sociedad Pública «Urbiga, Urumea-Bidasoaldea Industri Garapenerako Baltzua, S.A.»

El Decreto 309/1997, de 23 de diciembre, autoriza a la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI) la participación en la nueva Sociedad «Urbiga, Urumea-Bidasoaldea Industri Garapenerako Baltzua, S.A.», creada como consecuencia de la fusión de la Sociedad de Desarrollo Industrial Sortu 1, S.A. y la Sociedad de Desarrollo Industrial Sortu 5, S.A.

Una vez constituida la misma, en aplicación de la Disposición Adicional Segunda de la Ley de Régimen Presupuestario de Euskadi (Texto Refundido), el Go-